



**EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA
KCAPPO TEMPO DI TREMOLO**

Pako Aristi

Euskal kantagintza berria

Bilduma: Saiopaperak 27

ISBN / EAN: 978-84-9109-498-2

Salneurria: 17 € (BEZ barne)

Orriak: 320

Koadernaketa: papel-azala

Kcappo. Tempo di tremelo

Bilduma: Poltsiko.e, 20

ISBN / EAN: 978-84-9109-313-8

Salneurria: 12 € (BEZ barne)

Orriak: 144

Koadernaketa: papel-azala

1985eko martxoan Erein argitaletxeak kazetari gazte baten lehen nobela argitaratu zuen, KCAPPO TEMPO DI TREMOLO. Pako Aristi deitzen zen, Kazetaritzako karrera ikasten ari zen, baina ordurako argitaratuak zituen hainbat egunkaritan erreportajeak eta elkarrizketak. Lehen nobela hura bere bataioa izan zen idazle gisan. Kritika onak jaso zituen, liburua erruz saldu zen eta argitalpen ugari izan ditu gerostik. 35 urte hauetan emankorra izan da Aristiren ibilbidea genero askotan, eta tinko eutsi dio ibilbide paralelo bati, literaturan eta kazetarigintzan.

Urte berean, urrian, bere bigarren liburua eman zuen argitara Ereinek, EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA. Saiakera periodistiko moduan aurkeztua izan zen. Bertan jaso zituen euskal kantagintzaren hastapeneko lehen 25 urteak, 1961ean Michel Labegueriek kantagintza berria inauguratu zuen lehen disko txiki hura argitaratu zuenetik.

Urte askotan agorturik egon da EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA, baina ez du galdu bere erreferente izateko gaitasuna, artikulua eta liburu anitzetan aipatua izan da, eta etorkizuneko ikerlariarentzat ezinbestekoa bilakatu da. Liburua aurkitzeko zailtasunak zituzten, eta orain hutsune hori betetzera dator berrargitalpen berri hau. KCAPPOren presentzia ez da inoiz desagertu izan liburu denda eta eskoletako liburutegietatik. Bi liburuok dira gerora idazle ezagun bilakatu zen Aristiren hastapeneko obrak, eta biak batera aurkezteak baduela zentzu berezi bat iritzi diogu. 35 urte ondoren ez dutelako gaurkotasunik galdu, eta haietan aurki litekeelako gerora idazle baten bidea markatu zuten bi ildo nagusi: fikzioa, eta saiakera periodistikoa.

EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA hiru zutabe nagusirekin eraikia dago: euskal musikan protagonista zirenekin elkarrizketak, prentsako informazioa, eta dena biltzen duen fikzio bat, bidai baten moduan antolatua. Mamia bezain garrantzitsua da estiloa, mamia irakurleari helarazteko teknika narratiboa, Aristi Kazetaritzako fakultatean ikasi zuena, batez ere Ipar Ameriketako 'Rolling Stone' aldizkariak ekarri zuen narrazio periodistiko berria. Protagonista ugari daude orriotan, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Ruper Ordorika, Oskorri, Imanol eta abar luzea. Anekdotak ere bai, pasadizoak, garai hura ederki metaforizatzen dutenak. Euskal kantagintza pil-pilean zegoen, eragin sozial handia zeukan, eta oro har artearen esparru guztietan eman zen berpizkundearen zati bat izan zen, margolaritza, bertsolaritza edo literaturarekin batera. Mosaiko eder baten zati esanguratsua izan zen, liburuan antzeman daitekeen bezala.

Donostia, 2020ko maiatzak 21